

Batzuk alde, asko aurka, gehienak hotz

KONTSULTA LEGEA dagoeneko Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren erraietan dago eta denak jarraitzen du iragarri bezala, ez dago besterik ohiko dialektika politikitik harago. Jaurlaritza osoa prentsaurrekoan agertzeak ez du ohikotasun hori apurtzea lortzen. Eta ez du lortzen, hirukoaren orain arteko erantzuna beti bertsua izan delako eta ez duelako asmatu herritarren artean ilusio berezirik sortzen. Akaso gidoiaren kontuak dira, hau da, Auzitegi Konstituzionalak ezezko borobila eman arte ez dela erantzun indartsua agertzeko unea.

Baina hori baino arazo sakonagoak ere antzematen zaizkio kontsultaren inguruko ekimen politikoari. Hiru behintzat oso esanguratsuak dira. Bat, EAJren zuzendaritzaren bultzada esku txikiarekin egindakoa da, gurdia oso urruti ez joateko modukoa; eta sarritan, jeltxer esanguratsuen adierazpenek, galga nabarmena erakusten dute. Horien aurrean EAJren zuzendaritzan dagoen jarre-
rak nekez pentsarazi dezake Ibarretxeren defentsa sutsurik dagoenik. Gizarteratzen den irudia bederen hori da.

Bi, EA eta Ezker Batuaren indarra txikia da Jaurlaritzan, eta gizarte



Denak adierazten du Laredo eta Nojako lehergailuekin ETAK hasiera eman diola bere udako kanpainari. Zalantza da ea 2006ko su-etenaren aurreko lehergailuen lerroa jarraituko duen edo su-etenaren osteko hildakoen joerari eutsiko dion.

mailan duten ordezkartza eta eragina ere ez da gizarte sektore zabalak mobilizatzeko modukoa. Hiru, abertzaletasunaren baitako arrakala sakonak ez du ahalbideratzen gizarte sektore zabal eta eraginkorren bultzada sendorik. Panorama horrekin doa Ibarretxe urriaren 15era, garaipenera doan liderraren irudia baino plazan inguratua eta atzeraurrera dabilen zezenarena eskainiz. Konstituzionalistak oso nagusi diren

ispilu mediatikoan irudi hori areagotu besterik ez da egiatan.

KONSTITUZIONALAREN erantzuna alde aurretik ezaguna da, gaur gaurkoz Madrilen ez dago bestelakorik onartzeko moduko kultura politikorik, eta Auzitegi hau kultura horren isla garbia da. Espainiako klase politiko nagusiak argi du nor den Espainiaren burujabetza bakarraren subjektu eta argudio horri eman dio indar berezia helegitean. Jaurlaritzak ere badaki legeak zer dioen, baina kontsulta ezloteslearen irudiarekin egin nahi izan du politika. Gehienon begietan hori ikusten baita, politika egiteko modu bat –zilegia eta txalotua batzuentzat eta erratua beste askorentzat– ez urriaren 15ean egin egingo den kontsulta bat.

Kontsulta ez loteslea debekatzearen lehen erantzukizuna Espainiako Gobernuaren eta Jose Luis Rodriguez Zapateroren gain utzi nahi ditu Jaurlaritzak, eta taktika ez litzateke txarra, ondorengo estrategia ondo finkatua balego. Hori da hain zuzen ahul antzematen dena. Gaur egun kontsultarena hoztasunez bizi da gizartearen eta halako ezpalekin nekez aterako da txinparta handirik erantzunaren unean.

ATALAIA JATETXEA

Aritz Ondo, 69 • 20305 Irun • Tel: 943 635518 • Faxa: 943 638718
e-posta: info@hotelatalaia.com • web orria: www.hotelatalaia.com